

OSTEGUN GURENA LASTEARTEZ?

Itun Zarreko egutegia eguzkiarekin zebillela dirudi, ta ez illatgiarekin, Kumran'en arkituriko idaztien argira. Idazti oieri jarraituz, gaur ba-dakigu eberrak jaiak zer ill, aste ta egunetan ospatzen zituzten. Ontatik agerida Pazko eguna beti asteartez zutela. Eguna auxe dirudi Kumran'go lekaideen Pazko eguna. Izan ere, egutegiarekiko auziak (beste zergaitik geiago ere ba-zituzten) eragin bai zitun Kumrandarrak apaiz nagusien erlijio-keratik bereiztera: oiek illargiarekin neurtu nai nai egutegia Siri tarre-ri jarraiki ta aiek, berriz, eguzkiarekin lenari eutsiz.

Berez datorren galdera: Jesukristok ere bere Pazkoa Apostoluekin ospatzeko egun au aukeratu ote zun ala ez? Edozeinetara ere, judu-agintariak baiño lenago jan zuten Azken Pazkoa. Begira. Joan ebanjelariak (Jon. 18,28) dionez, judutarrak etzuten Pilatus'enean sartu nai izan. Zer zalata? Legeak debekatzen zielako. Izan ere, kutsutu bezela egiten omen zitun sinisgabeen, jentillen etxeetara sartzeak; mota batzutatako abereak eta gorputz illak ikututzeak bezelaxe kutsutu ere. Kutsu onen zigor eta ordain, berriz, zegozkien eskubide batzuk debekatzen zizkien Legeak. Aldiz, egun-barruan ala aste-barruan bakarrik eta, aldiz, berrogeialdi osoan debekatu ere. Jan nai zuten Pazko-Aparia judu-agintariek eta ziur baiño zurrago arrats artan bertan gainera. Izan ere, bezpera-arrratsaldetik asten balizan bigaramuna.

Garbi dago, beraz, Jesusek ospatu zula azken-Pazko, Azken-Aparia ta, bestalde, eliz ta erri-agintariak artan ospatzeko zutela.

Ta zer egun ote zan? Ebanjelioari ez darie ontan argirik. Aitzitik. Zail ere zail dirudi Azken-Aparia Ostegun arratsaldez ospatu izatea. Jakiña, Ebanjelio oek dioten guzia geiegi

baita eguerdirarte bakarrerako. Ikus dezagun, bestela "Sanedrin" batzar nagusiak bi billera egin zitun; beste bi eserialdi egin zitun Pilatusek auzi-maiean Jesus epaitzeko. Erodesenganako joan-etorria, gaiñera. Au guzia sartu al zitekean eguerdiarte batean? Ez dirudi. Seiretan asi ziralarik ere, amabietako Gurutzean josia bear zuten. Amabietatik iruretara izan baizan illunaldia Lukas Deunaren aitorrez (Lk.23,44). Ill ere irurak inguruan ill zan. Eguerdi artan sartu bear dira zigorraldi ta Gurutze-Bidea ere. Gaez egingo zituztela billeraren batzuk? Ez zezaken "Sanedrin" batzarrak erio-auziak egun-argiz egitea agintzen bai zun legeak. Ebanjelioen aitorra ez dago, beraz, Azken-Aparia Ostegunez egin zutelazkoaren alde? lenago bear zunaren alde, baizik.

Ebanjelioaren barne-argibidez bidezko dirudin iritzi onek berekin du Abitza ere. Bigarren gizaldiko aitorra da, Jesusek Pazko Aparia aste-arteaz jan zula ta arrats berean atzilotu zutela. Asteazkena Kaipa'renean eta Osteguna Pilatus'enean egin zitula auzitegi ta illunpe. Azkenik, ostiralez gurutziltzatu. "Didaskalia" deritzaionean dager eta beste idazleren batek ere au bera dio. Bidezko dirudi iritzi onek. Alare sakonago aztertu bear, Nekaldi osoko gertaera bakoitzari bere garaia erabakitzeke.

AZKENA: Bijoia zirriborro loturik berenik, Antonio G. Lamadrid'ek "Descubrimientos de Qumrán" liburuan labur-zurrean (174'tik 176'ra) adierazten dun iritziaren berri.

Oargarri da, oraindik ziurtzi guzizkorik ez dezaiokegula eman iritzi oni. Paris'eko "Ikasketa Nagusien Ikastolan" irakasleme dan A. Jaubert ek sortu zun.

Ba-zitun berealaxe jarraitzalleak. "Pontificium Institutum Biblicum"en zuzendari dan Ernest Vogt josulagunak bi aldizkaritan idazti zun iritzi berauxe, naiz-ta, aldiz, akats batzuk arkitu. Bi jakitun oien iritziak aztertu ondoren au erabakitzen du Joan Leal jesulagunak "Estudios Eclesiásticos" en (188'garren or.; IV-1957). Juan Ebanjelariak eta beste irurak egutegi bat eta berarekin ez dirala ari. Au ziurrik. Baña asteartekoarena ez dagola erabakitzerik.

Gaztañaga'tar Jexux
Donosti'ko apaizgaiak